



**2022KO IRAILAREN 12KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko irailaren hamabian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Kontuhartzaile lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu eta idazkari lanetan berriz Idoia Garmendia Callejak.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko abuztuaren 1ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 42 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HIRUROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA BERROGEITA BI euro ETA HIRUROGEITA BI zentimo (70.242,62 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN OINEZKO PASABIDEA OBRAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-**

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza erreka gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen bigarren obra egiaztatzea egin du. Bigarren obra egiaztatzea honen zenbatekoa MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI euro ETA BERROGEITA LAU zentimo (1.959,44 €) gehi B.E.Z.ri dagokion LAUREHUN ETA HAMAIIA euro ETA BERROGEITA ZORTZI zentimo (411,48 €) da, guztira BI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR euro ETA LAUROGEITA HAMABI zentimo (2.370,92 €).

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Bestalde, Joxemai eta Maialen zinegotziak (EH Bildu) abstenitu egin dira proiektuarekin bat egiten ez dutelako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), bigarren obra egiaztatzea hau onartu egin du.

**IV.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-**

Euskara Batzordetik Tokiko Gobernu Batzarrerera dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, honako erabaki hau hartu da:

- Euskara ko eskoletara joateagatik.-

2021-2022 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntza ematea. Ikasle bakarra da, bere espedientean dauden datuen arabera, eta guztira 1.161,00 € emango dira.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

V.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei hirugarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

<b>Baserritarra</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Aitor Iztueta Barandiaran	95 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>95 €</b>

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Joxemai Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) hainbat galdera egin ditu Lazkaomendin urarekin dagoen arazoaren inguruan, herrian hilda azaldu diren txakurren inguruan eta betetzeko dagoen udaltzain postuaren inguruan. Kepa Zubiarrain alkateak erantzun ditu galderak.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

